



## II. ATALA

## BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

## Bilboko Berregokipenerako Hirigintza Elkarte, S.A. (Surbisa)

**Bilbo osoko bizitegi eraikinetan eginiko obra eta jarduketetarako Surbisaren diru-laguntzak jasoko dituzten «lerro berdea», «arkitektura oztopoak kentzea» eta «egitura konponketak» izeneko programen oinarri arautzaileak.**

## ZIOEN AZALPENA

Hiri Berroneratzearen sailak, Surbisaren bitartez, Bilboko Berregokipenerako Hirigintza Elkarte den aldetik, hainbat tresna ditu Bilbo udalerrri osoan udal politika eta helburuak aplikatu daitezkeen lortzeko; tresna horien artean daude bizitegi eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko diru-laguntzak.

Zehatzago esanda, Oinarri hauen bitartez eraikuntza orok erdietsi beharko lituzkeen hiru alderdi beharrezko eta komenigarritan jarri da begirada: energia efizientzia eta aurrezpenerako neurri aktibo nahiz pasiboak ezartzea; arkitekturazko oztopoak kendu eta etxebizitza guztiek iriste erraztasun neurriak izateko eraikuntza egokitzapenak; eta Bilboko bizitegi eraikin parke osoan gutxieneko segurtasuna eta egonkortasuna bermatzea.

Horregatik, arautze honen bitartez, hiru jarduketa-programa jarriko dira abian: «Lerro Berdea», «Arkitektura Oztopoak Kentzea» eta «Egitura Konponketak». Beraz, Bilbo osoko bizitegi eraikinetan eginiko obra eta jarduketak sustatuko dira.

Lehenik eta behin, Lerro Berdea programaren bitartez, Estatuko Energia eta Klima Planean jasotako energia eraginkortasun mailak lortzeko helburuak betetzeko 2022an ekin zitzaion planarekin jarraituko da; izan ere, honen helburua da 2030erako 1.200.000 etxebizitza energia-eraginkortasun baldintzetan birgaituta egon daitezela.

Gainera, programa hori Bilboko Balioen Gutunean sartzen da, zehatzago esanda, Ingurumenaren Jasangarritasunari, Konpromiso eta Ardurakidetzari nahiz Osasunari dagokionean. Era berean, Garapen Jasangarriko Helburuekin bat dator: Txirotasun Energetikoaren Amaiera, Osasuna eta Ongizatea, Energia eskuragarria eta ez-kutsatzailea, Hiri eta erkidego jasangarriak, Klimaren aldeko Ekintza.

Oparotasuna kontuan hartuz, 2023ko azaroaren 28ko Udalbatzaren erabakiz, azpimarratu zen energi politikak lehenetsi egin behar zirela Bilboko Udalean eta energia berriztagarrien kudeaketa eredu eta erkide kontrol berriak erraztu behar zirela Bilboko etxeetako energi birgaitzearen bitartez. Hori dela eta, energia-iturri berriztagarriak dituzten instalazioak sustatzeko enkargua eman zen beren-beregi, beste sustatze lerro batzuen kaltetan izan gabe.

Puntu honetan geratuko gara gogorarazteko energia berriztagarrietan oinarritutako energi eredu baterako energi trantsizioaren aldeko apustua nahitaezkoa eta premiazkoa dela klima larrialdiari aurre egin eta energia fosilen eta kanpoko energia iturrietarako daukagun menpekotasuna murrizteko. Gainera, energiaren prezioaren igoera nabarmena dela eta, autokontsumo berriztagarria nahitaezko elementua da kontsumitzaileek energia garbiagoa eta merkeagoa lortu ahal izateko.

Autokontsumo berriztagarriaren zabalkundeari esker, hori instalatzen duten kontsumitzaileek berehala murrizten dute energi faktura eta, gainera, handizkako merkatuan energi eskaera ere murrizten dute. Era berean, ingurumen baldintzak hobetzen ditu eta hidrokarburoen inportazioa murrizten laguntzen du; ondorioz, kanpoko energi menpekotasuna txikitzen da.

Hori guztia kontuan izan da bizitegi eraikietan energi aurrezpena sustatzen duten halako neurri aktiboak sartzen dituztenei diru-laguntzak emateko. Eta ez hori bakarrik; izan ere, deialdian erreserba bat egingo da Lerro Berdea programako laguntza lerro honetarako, zertarako-eta ahalik eta halako jarduketa gehienetara iristeko, deialdian jarritako epeek halako jarduketei modu negatiboan eragin gabe.



Beraz, «Lerro Berdea» diru-laguntza programa horrek diruz lagundu daitezkeen hiru arlo markatzen ditu:

- Bilboko bizitegi eraikinen energi birgaikuntzan neurri pasiboak ezartzea.
- Bilboko bizitegi eraikinetan energi birgaikuntzan neurri aktiboak ezartzea, energia iturri berriztagarriak erabiltzen dituzten neurriak sartuta.
- Erabiltzen ez diren edo txarto/arauz kanpo erabiltzen diren eta utzita dauden eraikin edo espazio pribatuen birnaturalizazio esku-hartzeak. Jarduketa berdeak eta naturalizazioak, ingurumen helburuak lortzeko nahiz narriatutako edo horretarako bidean dauden espazioen mantentze eta erabilera arazoak murrizteko, bai eta hainbat espazioen birgaitzea errazteko ere -eraikinen teilatu edo fatxadak, esaterako- haien onura, erabilera edo gozamenerako espazio naturaletan eraldatuta.

Bigarrenez, Arkitektura Oztupoak Kentzea programa jaso da.

Bilboko Udalak urte asko darama hiriaren iriste erraztasun unibertsala lantzen, ikuspegi global eta zeharkakorik, inklusiorako eta kohesio sozialerako ezinbesteko neurria baita haren aburuz. Hau da, Bilboko Udalak bere web-guneak berrikusi eta egokituz ikuspegi teknologikotik sustatzen du iriste erraztasuna; hiriko iriste erraztasuna sustatzen du hiriko auzo guzti-guztietan oinezkoentzako ibilbide irisgarriak sortuz eta, horretarako, bide publikoan elementu mekanikoak instalatzen ditu; informazioaren eta dokumentazioaren iriste erraztasuna sustatzen du, Irakurketa erraza eta Arreta iristerraza erabiliz; edo hiriko ondare eraikiaren iriste erraztasuna sustatzen du, udalerriko etxebizitzaren % 15ek ez baitu igogailurik.

Azken puntu horretan, Bilboko bizitegi ondare eraikiaren iriste erraztasunean, non «Arkitektura Oztupoak Kentzeko» diru-laguntza programa hau zentratzen baita, diruz laguntzeko 4 jarduketa arlo daude eta balizko berezi bat Otxarkoagarako; hau da:

- Igogailuak edota ibilbidearen luzapenak jartzea.
- Arkitekturazko oztupoak kentzeko beste esku-hartze batzuk, esaterako, eskailerak gainditzekoak, arrapala eratzea, etab.
- Eraikuntza blokeetan igogailuak jartzeko aurreproiektuak idaztea.
- Dagoeneko badauden etab titulartasun pribatua duten kanpoko urbanizazioak eraberritzea, erabilera publiko nahiz pribatukoak izan, bizitegi eraikinen inguruetan daudenean eta beti ere, arkitektura oztupoak kentzea eragiten duten jarduketak direnean.
- Igogailuak jartzea Otxarkoagako Plan Bereziaren eremuan.

Eta, hirugarrenez, Egitura Konponketak programaren helburua da titulartasun pribatua duten eraikinen segurtasun, osasun eta apaintura egoera ona zaintzea, hirigintza legediak agintzen duenari jarraituz.

Bilboko eraikuntza parkearen antzinakotasuna ikusita eta Eraikinen Azterketa Teknikoaren Txostenak aurkeztu direla eta, eraikinen eta erantsitako lursailen euste egiturak kaltetuta daudela antzeman da. Horien konponketa oso garestia izaten da egikaritze zailekoak direlako. Gainera, batzuetan, kalte hori eraikuntza osora zabaldua egoten da.

Bestalde, patologia horiek larritu egiten dira lehenago ez direlako antzeman: eraikinen egitura ezkutuan egoten da eta berorren kalteak ez dira ikusgai jartzen harik-eta akaberetan edo itxituretan beste kale batzuk eragiten dituzten arte.

Soilik bizitegi eraikinetan egikaritutako esku-hartzeetarako diren laguntza hauek ezarrita, asmoa da ezustean sortu diren obren aparteko gastuen finantziazioan laguntzea; izan ere, kalte horiek segurtasunean duten eragina dela eta, ezin izaten dira luzaroan konpondu gabe utzi. Premiazkoak eta garestiak izaten dira oro har.

Bilboko Udaleko Hiri Plangintza, Proiektu Estrategiko eta Espazio Publikoko Saila egiten ari zen bezala, programa honetan laguntza kualifikatu batzuk sartzen dira higiezin egituraren kaltearen jatorria termitak direnean. Balizko horietan, horrelako plagen izaera inbaditzailea dela eta, beharrezkoa da higiezin multzo bati eragin diezaiekeen lan berezituak burutzea, eta horrek horietan guztietan baterako tratamendu eta esku-hartzeak eskatzen ditu. Hain zuzen ere, hainbat jabekide-elkarteen adostasuna eskatzen



duten esku-hartze horiek sustatzeko, beharrezko azterketak diruz laguntzea aurreikus-ten da: laginak jaso, tratamendu kimikoak, arkitektura jarduketak eta mantentze neurriak.

Beraz, labor esateko, Hiri Berroneratze Sailaren helburua da, Surbisaren bitartez, Oinarri hauek onetsita, Bilbo udalari osoko ondare eraikia seguruagoa, iriste erraz, ja-sangarri eta efizienteagoa izatea eta, ondorioz, kalitatezko etxebizitzak eskaintzea.

## HIRU PROGRAMETAN KOMUNAK DIREN XEDAPENAK

### **Lehena. – Xedea**

Oinarri hauen xedea da Surbisaren bitartez Hiri Berroneratze Sailak, Bilbo udalari osoko ondare eraiki pribatua hobekuntza esku-hartzeak burutzeko, onetsi eta ematen dituen itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak lortzeko betekizunak arautzea, zertarako-eta eraikuntza multzo seguru, iriste erraz, jasangarri, efiziente eta kalitatezko etxebizitzak dituen lortzeko.

### **Bigarrena. – Onuradunak**

Oro har, oinarri hauek araututako laguntzak Bilbo udalari jabetza pribatuko bizi-tegi eraikinen Jabekideen Elkarteek eskatu ahal dituzte.

Era berean, diru-laguntza programa bakoitzean, diru-laguntzak eskatzen dituzten beste eskatzaile mota batzuk hartu ahal izango dira kontuan.

Oro har jarduketa guztietarako, jarduketa babesgarri onuradunek ordainduta izan beharko dituzte Udalarekiko edota Surbisarekiko betebeharrak ekonomikoak eta urbanisti-koak, bai eta euren betekizun sozial eta fiskalak ere, bai diru-laguntzak aitortzeko unean bai ordaintzerakoan ere.

Ez zaizkie laguntzak aitortuko beste espediente batzuetan –hirigintzakoetan nahiz Surbisak tramitatutako laguntzetan- euren betebeharrak bete ez dituztenei, eta ezingo dira zor horiek konpentsatu balizko laguntza berri hauekin.

### **Hirugarrena. – Eraikinek diru-laguntzak jasotzeko bete behar dituzten betekizun orokorrak**

Diru-laguntzak lor ditzaketen eraikinek honako betekizun hauek bete behar dituzte:

- Higiezinaren erabilera nagusia bizitegiak izatea; hala ere, programa bakoitzean berariaz jasota egongo dira salbuespenak. Eraikinean etxebizitza erabilera lehentasunezko hartzeko, guztizko azalera erabilgarriaren %70ek, gutxienez, etxebizitzarako erabilia izan beharko du, beheko solairuaren azalera zenbaketa horretatik salbuetsita.
- Eraikinaren antzinatasuna hamar (10) urtekoa edo gehiagokoa izatea.
- Bizitegi eraikina denean, dagokion Eraikinen Ikuskaritza Teknikoa (EIT) aurkez-tua izatea, Eusko Jaurlaritzak EITak kudeatu eta erregistratzeko gaitutako pla-taformaren bitartez. Honako hau da plataforman sartzeko esteka: <https://www.euskadi.eus/euskoregite>. Era berean, 1, 2 eta 3. graduko Gabeziak Konpondu Izanaren Ziurtagiria aurkeztu beharko da, hala badagokio, eta betetzeke izan litzakeen udal egikaritze aginduak ere bete beharko dira.

Ez da eskatuko Eraikinen Azterketa Teknikoko Txostena baldin-eta diruz laguntze-koa den jarduketa dokumentu teknikoak idaztea bada, ez eta programa bakoitzean be-ren-beregi salbuetsitako beste balizko batzuetan sartzen badira ere.

### **Laugarrena. – Diruz laguntzekoak diren obra edota jarduketan betekizunak**

Oinarri hauek jasotako laguntza ekonomikoak lortu ahal izateko, obrek, hala ba-dagokio, udalaren obra lizentzia edo obren Aurreiazko Jakinarazpena aurkeztu behar-ko da (aurrerantzean, obra baimena, bi kasuetarako); gainera, kasua bada, espediente horietan eskatutako obra amaierako dokumentazioa ere behar bezala aurkeztua izan beharko da.



Ezingo dituzte laguntza horiek jaso diruz laguntzekoak diren jarduketan hasi aurretik, eta beharrezkoa bada, dagokion obra baimena lortu ez duten jarduketa edo obrek.

Dagokion deialdiak ezarriko du, hala badagokio, obra baimenak noiz eskatu/lortu beharko diren, bai eta aurkeztu beharreko fakturen eta dokumentu teknikoaren datak zeintzuk izan behar diren.

Dena dela, diruz lagundutako jarduketa guztietarako laguntza eskaera behin jarduketa amaitutakoan aurkeztuko da, programetako bakoitzean kontrakoa adierazten ez den bitartean.

#### **Bosgarrena. — Aurrekontu Kontsignatzea**

Laguntza hauen Deialdiak edo deialdiek horietako bakoitzean esleitutako aurrekontu diru-hornidura zehaztuko du(te), eta laguntza programa edota programa-lerro bakoitzeko zenbateko desberdinak zehaztu ahalko dira.

Era berean, ez da beharrezkoa programaren baten, guztien edo programa bakoitzeko lerroren baten urteroko deialdia egitea.

#### **Seigarrena. — Mugak eta bateragarritasunak**

Oinarri hauetan jasotako laguntzarik ezingo dute eskatu Udalaren edo Surbisaren beste laguntza batzuk jaso dituzten jarduketek; baina Surbisaren eremuan dauden bizi-tegi eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko eta hobetzeko diru-laguntzen Oinarri Arautzaileetatik eratorrietan aipatutakoak jaso ahalko dituzte. Hala ere, Zorrotzaurre eremuan Surbisaren laguntzak jasoak dituzten jarduketak Oinarri hauetan araututako diru-laguntzekiko bateraezinak izango dira.

Bestalde, ezingo dituzte Oinarri hauetan jasotako diru-laguntzak jaso Next Generation Funtsetako laguntzak (Next Generation Europar Funtsei buruzko 2022ko ekainaren 21eko Agindua) jasoak dituzten edo horretarako itxarote-zerrendan dauden jarduketek.

Elkarren artean bateragarri izango dira Oinarri hauen arabera diruz lagunduak izan daitezkeen jarduketetarako diru-laguntzak, bai eta Surbisaren edo beste erakunde batzuen gainerako diru-laguntzak ere; hala ere, jasotako diru-laguntzen guztizkoak ezingo du aurrekontu babesgarriaren % 100 gainditu, eta, hala balitz, Surbisak aitortutako zenbatekoak murriztu ahalko dira, ondoren xede bererako beste laguntza batzuk onesten bazaizkio.

Oinarri hauen arabera diru-laguntzak jaso ditzaketen onuradunek azkenik beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatuetatik aurrekontu babesgarriaren diru-partidak estaltzeko jaso dituzten eta itzuli behar ez diren diru-laguntza guztien berri eman behar diote Surbisari. Hori guztia gainfinantziazioa ez dagoela egiaztatzeko, eta, hala badagokio, kasuan-kasuan dagozkion laguntzak birkalkulatzeko xedez.

#### **Zazpigarrena. — Betekizun objektiboak**

##### **7.1. Aurrekontu babesgarria.**

Aurrekontu babesgarria osatuko dutenak honako hauek dira: esku-hartzearen egikaritze kostuak, BEZa, obra baimenetik eratorritako Tasak eta Zergaren zenbatekoa, dauden ordainsari teknikoak eta horri dagokion BEZa.

Era berean, programa bakoitzean, diruz lagundu daitezkeen beste kostu batzuk jaso ahalko dira, adierazitakoez gain.

##### **7.2. Gutxieneko aurrekontu babesgarria.**

Oro har, gutxieneko aurrekontu babesgarria hiru mila eurokoa (3.000,00 euro) izango da, programa edo babes-lerro bakoitzean jasota egon daitezkeen salbuespenak kontuan hartuta.

#### **Zortzigarrena. — Eskariak aurkezteko epea**

##### **8.1. Eskariak aurkezteko lekua eta modua.**

Oinarri hauetan araututako diru-laguntzen eskaerak honela aurkeztu ahalko dira:



- Surbisak Erronda kaleko 6.ean dituen bulegoetara bertararuta. Horretarako, aurretiazko hitzordua eskatu beharko da 944 159 955 telefono-zenbakira deituta.
- Edo posta elektronikoz, laguntza programa bakoitzerako adierazitako helbidera idatzita.

Eskarian adierazitako posta elektronikoaren helbidea erabiliko da espedientetik sortutako izapideei buruzko jakinarazpenak egiteko.

### 8.2. Aurkezteko epea.

Eskariak aurkezteko epea dagokion deialdian ezarritakoa izango da. Horren laburpena, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Deialdi honetan sartuta daude, berriro eskaera egin behar izan gabe, honen aurretik aurkeztutako eskaerak, emateko ebazpena eta ordainketa egiteko zain baldin badaude, Xedapen Iragankorrean ezartzen den moduan.

### 8.3. Erantsi beharreko dokumentazioa.

Diru-laguntzaren eskaria egiteko, Surbisaren bulegoan jaso edo beronen web-orrian aurkitu ahalko den inprimakia beteko da (Eskaria eta erantzukizunpeko adierazpena) eta, horrekin batera, programa bakoitzerako edota diruz lagundu daitekeen jarduketa bakoitzerako adierazitako dokumentazioa aurkeztuko da.

Dokumentazioa telematikoki aurkeztuko balitz, hau nahitaez «pdf» edo «jpg» formatuetan erantsi beharko da. Beste formatu batean aurkeztutako edozein dokumentazio ez aurkeztutzat joko da.

Laguntzen eskaria eginda, Surbisari baimena ematen zaio izaera pertsonaleko datuen tratamenduari ekiteko, dagokion legediarekin bat eginez, eta, tramitazio honetarako behar izanez gero, beste Administrazio Publiko Batzuekin Datuen Bitartekaritza Plataformatik edo Udal Administrazioetik beretik beharrezko informazioa lortzeko ere bai.

## **Bederatzigarrena. — Dokumentazioa egiaztatzea**

Baldin-eta espedientearen tramitazio aldian aurkeztutako eskarian nolabaiteko akatsa, zehaztasunik eza edo erantsi beharreko dokumenturen baten falta dagoela ikusiko balitz, eskaera-inprimakian agertzen den eskarigileari jakinaraziko litzaioke, eta hamar egun baldioduneko gehieneko epea emango litzaioke akatsak zuzentzeko edo falta den dokumentazioa ekartzeko, eta esango zaio hala egiten ez badu eskariari ezezkoa emango zaio eta horretarako eragina duen jakinarazpena igorriko zaio. Bestetik, ez dira kontuan hartuko eskaerarekin batera aurkeztu gabeko gastu eta fakturak.

Surbisak beharrezko duen informazio eta dokumentazio osagarria eskatu ahalko dio eskarigileari, diru-laguntza emateko eta etxebizitza edo eraikinari bisita tekniko bat egingo dio laguntza emateko eta dokumentu teknikoa edo laguntza teknikoaren kontratua eskatutako xedeetarako egokia den zehazteko edo bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa duela justifikatzeko.

## **Hamargarrena. — Eskaria onestea eta laguntzak ematea**

Diru-laguntzak lehiaketarik gabeko prozedurako erregimenean onetsiko dira, aurrekontu kreditua agortu arte, eta aurkeztutako eskarien aurkezpen-ordena jarraituko da horretarako.

Aurrekontu diru-hornidura amaitutakoan, aurkeztutako baina ebazpenaren zain dauden eskariak hurrengo deialdi edo aurrekontu-zabalpenean sartuta geratuko dira, eskaria berriro egin beharrik gabe.

Eskaria osoki aurkeztu eta lau hilabeteko epean, Surbisako presidentziak, bertako teknikariek eginiko proposamena ikusita, dagokion diru-laguntza eman ala ez emateari buruzko erabakia hartuko du. Baldin-eta laguntzak emateko erabakia hartzen bada, horren zehaztekoa adieraziko du, eta ukatzen bada, horretarako arrazoiak adieraziko dira.

Epea amaitu eta jakinarazpenik egon ez bada, erabakia ezezkoa dela ulertuko da isiltasunagatik, berriaz erabakitzeko betebeharraren kaltetan izan gabe.



Diru-laguntza modu arrazoituan ukatu ahalko da baldin-eta EITari, aplikatzekoa den Hirigintza Antolamenduari edo hirian eragin dezakeen inpaktu ikusizko edo estetikoari erreparatuz, diruz laguntzekoa den jarduketan kontuan hartzen ez bada jardundako erai-kinean, etxebizitzan edo espazioan antzemandako akats edo desegokitasunak zuzentzeko lana –interesatuari idatziz jakinarazitakoa–.

Eskatutako diru-laguntzak emateko edo ez emateko erabaki horren aurka errekurtsioa aurkeztua ahalko da, Laguntza espedientearen erabakiaren jakinarazpena jaso eta bihar-monetik hasi eta Hilabeteko epean. Surbisako Presidentetzak ebatziko du dagokiona.

**Hamaikagarrena. – Diruz lagundutako jarduketan kontrola eta justifikazioa**

Surbisako teknikariek dokumentu teknikoak berrikusi ahalko dituzte eta burututako obrak bisitatu ere bai, diruz lagundutako jarduketak espedientearen aurreikusitako moduan burutu diren egiaztatzeko.

**Hamabigarrena. – Diru-laguntza ordaintzea**

Oro har, diru-laguntzaren onuradunaren izenean dagoela adierazi den kontu-zenbakian sartuko da diru-laguntza, behin laguntza onartu zaiola edota jarduketan burutzapena justifikatu dela egiaztatutakoan.

**Hamahirugarrena. – Diru-laguntzaren, itzultzeen eta ezeztatzeen baldintzen aldaketa**

13.1. Laguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira –honen xedea betetzat ematen denean eta, kasua bada, beste erakunde publiko edo pribatu batek emandako laguntzak batera jaso direnean– laguntza emateko erabakia aldatu egin ahalko da.

13.2. Laguntzaren onuradunak hartutako konpromisoak ez dituela bete egiaztatzen bada, laguntzak baliogabetzeko prozedurari ekingo zaio eta horiek itzultzeko eskatuko da.

13.3. Laguntzak ezeztatzea.

Aitortutako laguntzak ezeztatu edo baliogabetu egin ahalko dira, aurretik diru-laguntzen eskarigileak eskarian emandako posta-helbidean edo, hori eman ez bada, eskarian adierazitako helbidean interesatuari jakinarazita (bi saiakera egingo dira), datuak faltsuak direnean edo araudi honetan edo nahiz laguntzen erabakian bertan jasotako edozein baldintza betetzen ez denean.

Laguntzak ezeztatuz gero, Surbisari itzuli beharko zaio jasotako zenbatekoa eta horri dagozkion interesak. Gainera, egokitu ahal zaizkion legezko ekintzak edo isunak ere sortu ahal dira.

Diru-laguntzaren onuradunek baldintzak ez betetzean izandako nahitasun-maila baliogabekoa ere ekin dakioke, diru-laguntzaren zenbatekoa edo itzuli beharreko zenbatekoak zein izan behar duen erabakitzeko.

Ez betetzeagatiko espedienteari hasiera ematea Surbisako Zuzendaritzari dagokio eta erabakia hartzea, Presidentetzari.

**Hamalagarrena. – Onuradunen betebeharrak**

Laguntzen onuradunen betebeharra da:

- Oinarri hauetan ezarritako guztia betetzea.
- Diru-laguntza zertarako eman den, horretarako erabiltzea.
- Uneoro Surbisako teknikariek jarduketa babesgarriak zehazki ikuska ditzaten ahalbidetzea, eta horiekin lotuta eskatzen zaizkien dokumentuak aurkeztea.
- Surbisari jakinaraztea babestutako jarduketak finantzatzen dituzten beste diru-laguntza batzuk jaso izana.
- Diru-laguntzaren edo murrizketaren itzulketa, baldin-eta Surbisak, Oinarri hauekin bat eginez, hala erabakitzen badu.



Surbisak, egoki irizten dituen bideak erabiliz, egiaztatu egin dezake emandako kopuruak ondo aplikatu diren helburuei dagokienez, eta, horretarako, gastua kontrolatu ahaliko du eta, hala badagokio, erantzukizunak eskatu, bai eta funtsak itzul daitezen ere, laguntza emateko zioa beteta ez balego. Horretarako, onuradunak nahitaez Surbisak, laguntzen helburuaren fiskalizazio funtzioak egikaritzuz, eskatutako informazio guztia eman beharko du.

Onuradunaren ardura da babestutako jarduketa indarren dagoen araua osoki bete dezan bermatzea, bai baldintza teknikoak, hirigintzazkoak nahiz izaera zibilekoak edo bestelakoak. Surbisak ez du inolako erantzukizunik izango onuradunak arauen bat beteko ez balu.

## Hamabosgarrena. — *Publizitatea eta zabalkundea*

15.1. Herritar guztiak jakinaren gainean egon daitezen, diru-laguntzak eman edo ez emateko erabakiak, eta egon litezkeen aldaketak, Diru Laguntzen Estatuko Datu basean argitaratuko da.

15.2. Laguntzen onuradunek laguntza eman beharko dute Surbisak birgaitzea finantzatzen izan duen partaidetza hedatzeko.

Horri dagokionez, espedientean jasotako dokumentazio teknikoa nahiz laguntzen xede diren eraikin edota espazioen argazkiak Surbisak erabilgarri izango ditu berak esku-hartu dueneko jarduketan publizitatea eta hedapena egiteko, une oro egilearen jabeago intelektuala errespetatuz.

15.3. Diru-laguntzen eskatzaileek emandako datu pertsonalak datuen babeserako indarrean dagoen legediak ezarritakoari jarraituz tratatuko dira.

## Hamaseigarrena. — *Araudi aplikagarria*

Oinarri hauetan berariaz aurreikusi gabeko guztian, eta bertan jasotakoaren aurkako ez bada, Surbisak Bilboko bizitoki eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko 2024-2027 urteetarako diru-laguntzen Oinarri Arautzaileak aplikatu ahaliko dira.

Surbisari dagokio, sor daitekeen edozein zalantza egoeratan, Oinarri hauetan araututakoa interpretatzea, eta bere irizpidea izango da behin-betikoa.

## Xedapen Iragankorra

Oinarri hauek indarrean jarri aurretik arkitektura oztopoak kentzeko eta egitura konpontzeko jarduketarako Bilboko Udalari aurkeztutako eskaera guztiak, aurrekontu-zuzkidurarik ez egoteagatik ebatzi ez direnean, Surbisak horiek izapidetzen jarraituko du, 2023 urteko Oinarriekin bat eginez.

Oinarri hauek indarrean jarri aurretik arkitektura oztopoak kentzeko eta egitura konpontzeko jarduketarako Bilboko Udalari aurkeztutako eskaera guztiak, amaitu gabeko jarduketak edo justifikatu gabekoak izateagatik ebatzi ez direnean, Surbisak horiek izapidetzen jarraituko du.

**LERRO BERDEA PROGRAMA****Lehena. — Xedea**

Oinarri hauen xedea da Bilbo udalerrian bizitegi eraikin pribatuen energi hobekuntzako esku-hartzeak burutzeko nahiz energia berriztagarrien erabilera sustatzeko eta jabetza pribatukoak diren eta Bilbon dauden hiri-espazio eta eraikinak naturalizatzeko eta hobetzeko jarduketarako Hiri Berroneratzearen Sailak, Surbisaren bitartez, onetsi eta ematen dituen itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak lortzeko betekizunak arautzea.

Energia efizientzia eta aurrezpena sustatzea da xedea eta, horretarako, jarduketa hauetarako neurri ekonomikoak eta erabakiak hartzeko laguntza teknikoa eskaintzen zaie eta erabiltzen ez diren espazio pribatuetarako soluzio berdeak bilatzen dira. Hori guztia hainbat xedetarako: energi efizientzi handiena lortzen duten lanak egitea erraztu eta energi aurrezpenerako inbertsioak sustatzea; energi efizientziako aurrezpen neurri gehiago ezartzen jarraitzeko sentsibilizatu eta energi hobekuntzako esku-hartze txikiak burutzen laguntzea; eta, azkenik, birnaturalizazio ekintzen bidez, udalerrian erabili gabe edota narriatuta dauden jabetza pribatuko espazioak edo eraikinen estaldura eta fatxadak eraldatzea.

**Bigarrena. — Jarduketa babesgarriak**

Honako hauek izango dira jarduketa babesgarriak, Oinarri hauetan aurreikusitako diru-laguntzak eman ahal izateko:

**2.1. Bizitegi eraikinen energi birgaikuntzan neurri pasiboak ezartzea**

Jarduketa babesgarriak izango dira Bilbon bizitoki erabilera duten eraikin pribatuen energia efizientzia eta jasangarritasuna hobetzeko esku-hartzeak, eraikinaren elementu osoa atxikitzen denean. Hemen aipatzen diren esku-hartzeak dira babesgarriak:

- Kanpoko inguratzailearen zati bateko isolamendua edo isolamendu osoa (fatxadak, mehelinak, patioak, estalkia...); bertan sartu ahalko dira, osagarri gisa, eraikinean isolatzen den elementuari lotutako inguratzaile termikoaren elementu komunaren arotzeriak aldatzea. Hala izateko, horien ezaugarriak Eraikuntza Kode Teknikoaren Energia Aurrezteko Oinarrizko Dokumentuan ezarritako transmitantzia termikoko eta airearen iragazkortasuneko muga balioetara egokitu beharko dira.
- Negu eta udarako klimatizazio pasiboko eraikuntza-soluzioak.
- Eraikinean badauden material eta eraikuntza sistemak berrerabiltzea, Euskal Autonomi Erkidegoko Etxebizitzarako Eraikuntza Jasangarrirako Gidak definitutakoarekin bat eginez.

Komunitatearen lanparak, argiak eta horrelakoak ordeztu edo egokitzea ez da babesgarria.

Hobekuntza hori jarduketaren aurreko eta osteko Energia Eragingarritasuneko Egiaztagiri batek ziurtatuko du, eta hobekuntza lortu dela nabarmendu beharko da bertan. Hobekuntzarik ekarriko ez balu, ezingo da laguntza hori eman.

**2.2. Energia berriztagarrien erabilpena sustatzeko neurri aktiboak ezartzea**

Jarduketa babesgarriak izango dira Bilboko bizitegi eraikin pribatuetan energia berriztagarrien bitartez eraikinaren instalazio termikoak eta energetikoak hobetzeko esku-hartzeak, esaterako:

- Energia iturri berriztagarriak erabiltzeko instalazioak ordeztzea, hala nola, bero-ponpak edo beste batzuk.
- Beroa berreskuratzeko aireztatze mekanikoko estrategiak.
- Elektrizitatea ekoizteko eguzki-indarraren bilketarako sistemak instalatzea.
- Ur bero sanitarioa ekoizteko eguzki-indarra biltzeko sistemak instalatzea.

Hobekuntza hori jarduketaren aurreko eta osteko Energia Eragingarritasuneko Egiaztagiri batek ziurtatuko du, eta hobekuntza lortu dela nabarmendu beharko da bertan. Hobekuntzarik ekarriko ez balu, ezingo da laguntza hori eman.





### 2.3. Erabiltzen ez diren espazioak birnaturalizatzeko jarduketak

Jarduketa babesgarriak izango dira erabiltzen ez diren edo narriadura egoeran dauden edo eraldatzeko aukera duten eraikin eta hiri espazio pribatuetan eginiko obra edo esku-hartzeak, baldin-eta horiek berriro erabili ahal izateko eta horien hiri-kalitatea hobetzeko atsegintzea bilatzen duten eta naturan eta objektu jasagarrietan oinarritutako soluzioak ezarri asmo duten proiektuak badaude eta honako helburu hauek badituzte: baliabide naturalak baliatu eta klima aldaketara egokitu, ibilgailuentzako espazioak oinezkoentzakoetan eraldatu, espazio naturala eta hiri-kalitatekoa handitu, etxarte patioak edo estaldurak lorategi edo antzeko soluzioekin naturalizatu, besteak beste.

Era berean, eta beti-ere hiri espazio horietan jarduketak abian jarri ahal izateko pertsona fisiko edo juridiko jabe edo atxikien aldetik beharrezkoa den adostasuna izanda, jarduketa babesgarriz har daiteke birnaturalizazio jarduketarako beharrezko dokumentu tekniko edo proiektua idaztea, eta ez da beharrezkoa izango obrak burutzeko Oinarri hauetan ezarritako epeak betetzea.

#### **Hirugarrena. — Onuradunak**

Oinarri hauen 2.3 atalean jasotako eta Bilbao udalerrian garatu beharrekoak diren jarduketetarako, jarduketa sustatu eta ordaintzen duten jabeak edo elkarteak eta pertsona fisiko eta juridikoak eskatu ahalko dituzte laguntzak, baldin eta jabeen baimena badu, berbera izan ezean.

#### **Bosgarrena. — Betekizun objektiboak**

##### 5.1. Aurrekontu babesgarria:

Oinarri hauetan esandakoaren arabera diruz lagunduak izan daitezkeen jarduketetarako, aurrekontu babesgarrian sartuko dira energia efizientziarako elementu eta instalazioak, bai eta hiru programetan Komunak diren Xedapenen Zazpigarren Oinarriko gainerako kontzeptuak ere.

#### **Seigarrena. — Laguntzen zenbatekoak eta mugak**

6.1. Diruz lagundu daitezkeen 2.1 ataleko jarduketak, Eraikinean Neurri Pasiboak buruzkoak:

Diru-laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, aurrekontu babesgarriaren gainean %50eko portzentajea aplikatuko da, gehienez ere 15.000 euro izango direlarik.

6.2. Diruz lagundu daitezkeen 2.2 ataleko jarduketak, Eraikinean Neurri Aktiboak buruzkoak:

Diru-laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, aurrekontu babesgarriaren gainean %50eko portzentajea aplikatuko da, gehienez ere 15.000 euro izango direlarik.

6.3. Diruz lagundu daitezkeen 2.3 ataleko jarduketak, Erabiltzen ez diren Espazioen Birnaturalizazioari buruzkoak:

Diru-laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, aurrekontu babesgarriaren gainean % 50eko portzentajea aplikatuko da, esku-hartze bakoitzeko gehienez ere 15.000 euro izango direlarik.

#### **Zazpigarrena. — Eskerak aurkeztea**

Oinarri hauetan araututako diru-laguntza eskaerak, hiru programetan Komunak diren Xedapenen Zortzigarren Oinarrian adierazitakoak gain, [surbisaverde@surb.bilbao.eus](mailto:surbisaverde@surb.bilbao.eus) helbidearen bitartez ere eska daitezke.

##### 7.1. Erantsi beharreko dokumentazioa.

Surbisaren bulegoetan eta bere web orrian jaso daitezkeen «Eskaera eta Erantzukizunpeko adierazpena» inprimakiarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa, behar bezala beteta eta sinatua, honako hau da:

#### A) *Neurri pasiboak eta neurri aktiboak eraikinetan (2.1 eta 2.2)*

1. Ordezkariek bere NANaren fotokopia, Jabeakideen Elkartearen IFKren fotokopia eta ordezkaritza eman izana adierazten duen dokumentua aurkeztu beharko du.



2. Emandako udal obra lizentziaren kopia. Lizentzia hori behar ez bada, dagokion aurretiazko jakinarazpena. Ez dira onartuko obrak egikaritu ostean lortutako edo aurkeztutako lizentziak edo Obraren Aurretiazko Jakinarazpenak edo Instalaziokoak.

3. Jabekideen Elkartearen Akta, zeinetan burutzeakoak diren obrak onesten direla adierazi eta onetsitako aurrekontuaren zenbatekoa jasotzen den.

4. Esku-hartzean sartzen den/diren eraikinaren edo eraikinen Ikuskatze Teknikoaren txostena. Honek aurkeztu izanaren egiaztapen zigilua izango du jarrita. Baldin-eta EITan 1, 2 edo 3. graduko obrak eskatzen badira, aurrekoaz gain, Eraikinaren Ikuskatze Teknikoak Adierazitako Gabeziak Konpondu Izanaren Ziurtagiria aurkeztu beharko da, dagokion Erregistroan aurkeztu izana egiaztatzen duen zigilua duelarik.

5. Arotzeriak ordeztuko balizkoan, EKT betetzen dela egiaztatzeko, prestazioen aitortpenaren eta argi eta garbi instalatutako kanpo arotzeri bakoitzari dagokion CE markaketaren etiketa ziurtatuko da, edo, horren ezean, hutsarte bakoitzeko transmitantzia termikoaren kalkulu bidez, UNE EN ISO 10077 arauarekin bat eginez, DA DB-HE 1 laguntza dokumentuaren arabera. Kasu horretan, markoen, beiren eta pertsiana kutxen fitxa teknikoa aurkeztu beharko da.

6. Eraikinean dauden eraikuntza materialen eta sistemen berrerabilerearen balizkoan: beharrezko justifikazio tekniko balioetsia, beroien bizi-zikloaren eta hori ezartzearen eraginaren analisia eginda.

7. Obrak hala eskatzen badu, teknikari eskudunaren Proiektu oniritziduna eta amaierako ziurtapenaren kopia.

8. Birgaitutako eraikinaren aldearen obrak hasi aurreko egoeraren eta obra amaierako egoeraren koloretako argazkiak.

9. Eraikinak obra burutu aurretik zuen Energia Eragingarritasuneko Egiaztagiria sinatua, bai eta hobekuntza ostean eraikinak duen Energia Eragingarritasuneko Egiaztagiria, teknikari eskudunek igorria; azken hori Eusko Jaurlaritzaren organo eskuduneari erregistratua egon beharko du, edo, horren ezean, erregistroa egiteko eskaria aurkeztu beharko da. Bi egiaztagiriek programa berbera erabiliz eginak izan beharko dute eta konparagarriak izango dira.

10. Kontu-zenbakia eta horren titulartasuna justifikatzen duen dokumentua.

11. Esku-hartze teknikoa egon baldin bada, obra amaierako ziurtagiria.

12. Kostuen justifikazio dokumentala: Burututako esku-hartzearen faktura banakaturia (banakaturia ez badago aurrekontu xehatua eta faktura aurkeztuko dira), udal tasa eta zergena eta profesionalen ordainsariena, baldin baleude. Ez da zenbatekorik diruz lagunduko eskaerarekin batera horren faktura edo ziurtagiria erantsi ez bada eta ez da eskaria egin ostean aurkeztutako besterik onartuko.

#### B) Erabiltzen ez diren espazioak birnaturalizatzea

1. Ordezkariek bere NANaren fotokopia eta Jabekideen Elkartearen IFKren edo ordezkatzen duen entitatearen fotokopia aurkeztu beharko du.

2. Jabekideen Elkartearen akta edo alde interesdun guztiek sinatutako Akordioa, zeinetan burututako lanak onesten diren; edo kontratatu beharreko dokumentuaren idazketa, zeinetan onetsitako aurrekontuaren zenbatekoa jasota egongo den.

3. Diruz lagundu daitekeen jarduketa obra egikaritzea (eta ez dokumentu teknikoa idaztea) denean, eta egoitza eraikin batean egitekoa denean, Eraikinaren edo esku-hartzearen xede diren eraikinen Azterketa Teknikoaren Txostenaren kopia. Txostena aurkeztu dela ziurtatzen duen zigilua ere izan beharko du. Baldin-eta EITan 1, 2 edo 3. graduko obrak eskatzen badira, aurrekoaz gain, Eraikinaren Ikuskatze Teknikoak Adierazitako Gabeziak Konpondu Izanaren Ziurtagiria aurkeztu beharko da, dagokion Erregistroan aurkeztu izana egiaztatzen duen zigilua duelarik.

4. Kontu-zenbakia eta horren titulartasuna justifikatzen duen dokumentua.



5. Diruz laguntzekoa den jarduketa obren egikaritzea edo instalazioak ezartzea de-nean:
  - a) Emandako udal obra lizentziaren kopia. Lizentzia hori behar ez bada, dagokion aurretizko jakinarazpena. Ez dira onartuko obrak egikaritu ostean lortutako lizentziak edo Obraren Aurretizko Jakinarazpenak.
  - b) Obrak hala eskatzen badu, teknikari eskudunaren Proiektu oniritziduna eta amaierako ziurtapenaren kopia.
  - c) Eraikina edo jarduketak atxikitako zonaldea obrak hasi aurretik nola zeuden edo obrak amaitzean nola geratu diren erakusten duten koloretako argazkiak.
  - d) Kostuen justifikazio dokumentala: Burututako esku-hartzearen faktura banakatu (banakatu ez badago aurrekontu xehatua eta faktura aurkeztuko dira), udal tasa eta zergena eta profesionalen ordainsariena, baldin baleude. Ez da zenbaterik diruz lagunduko eskaerarekin batera horren faktura edo ziurtagiria erantsi ez bada eta ez da eskaria egin ostean aurkeztutako besterik onartuko.
6. Diruz lagundu daitekeen jarduketa dokumentazio teknikoa idaztea bada:
  - i. Kontratututako dokumentazio teknikoaren kopia.
  - ii. Teknikarien ordainsarien faktura banakatu.



## OZTOPOAK KENTZEKO PROGRAMA

### 1. artikulua. — *Xedea*

Deialdi honen xedea da bizitegi eraikinei eragiten dieten arkitektura-oztopoak kentzeko lanak finantzatzeko diru-laguntzak ematea: eraikinaren barreneko elementu komunetan daudenean, atari ondo-ondoan dauden kanpoko oztopoak direnean (maila edo eskailerak, adibidez) eta igogailurik ez badu igogailua jartzeko direnean.

Era berean, helburutzat dute titulartasun pribatuen kanpoaldeko urbanizazioen eraberritze lanak finantzatzeko diru-laguntzak ematea ere badu xedetzat, erabilera publiko nahiz pribatukoak direnean eta bizitegi eraikinen inguruan daudenean, beti ere, arkitektura oztopoak kentzea helburu duten lanak direnean.

### 2. artikulua. — *Xedea: Bizitegi eraikinak bete beharreko betekizunak*

Ez da Eraikinen Ikuskapen Teknikoko Txostena eskatuko Programa honen 4.6 artikulua aipatzen dituen urbanizazioen eraberritzeetarako eskaria denean.

Inola ere ez dira laguntzak emango familia bakarreko edo bi familietarako etxebizitza isolatuak edo itsatsiak direnean.

### 3. artikulua. — *Onuradunak: Nortzuek eska dezakete diru-laguntza*

Bizitegi eraikinen Jabekideen Elkarteek eta etxebizitzaren jabeak diren pertsona fisiko nahiz juridikoek eska dezakete diru-laguntza, arkitektura oztopoak kentzeko jarduketak burutzen dituztenean, bai eta jarduketa horiek egikaritu eta finantziatzen dituzten atxikitako pertsonen ere.

### 4. artikulua. — *Diruz lagundu daitezkeen jarduketak eta diru-laguntzen zenbatekoa*

#### 1. Igogailuak jartzeko:

- 1.1. Jarduketa igogailurik ez duen eraikin batean igogailua jartzea denean, jarduketaren benetako kostuaren %10eko itzuli beharrik gabeko diru-laguntza izango da.

Laguntza honen gehienezko zenbatekoa hamabi mila (12.000) eurokoa izango da. Gehienezko muga hori aplikatuko da, era berean, hainbat esku-hartze era bateratuan egiten direneko balizkoan: igogailuak jartzea, ibilbidea zabaltzea edota oztopoak kentzeko beste edozein, batera egin ala ez. Horretarako, azken 10 urteetan burututako jarduketak hartuko dira kontuan.

- 1.2. Igogailua jartzeak pasatzeko moduko ibilbide global bat sortu beharra sortzen badu edo igogailua jartzeko lursailak edo eraikuntzaren zatiren bat erosi edo desjabetu egin behar izan badira, diru-laguntza aurrekontu babesgarriaren % 15 izango da, gehienez 32.000 euro jasoko direlarik.

Eragin horietarako, pasatzeko moduko ibilbide globaltzat hartuko da kaleko bidetik etxebizitza bakoitzera mailarik ez duen ibilbidea. Baliabide mekanikoak erabili beharra baldin badago, globalki pasatzeko modukotzat hartuko da baldin-eta plataforma jasotzaile bertikal bat baldin badu; ez da halakotzat hartuko baldin-eta zeharreko translaziorako baliabideak erabiltzen badira.

Laguntzaren zenbatekoa zehazteko, igogailuaren instalazioaren kostuaz gain, oztopoak kentzeko beste neurri batzuei dagozkienak ere kontuan hartuko dira, baldin-eta esku-hartze berean eta batera egikaritzen badira.

#### 2. Igogailuaren ibilbidearen hedapena:

Jarduketa igogailua duen eraikin batean igogailuaren ibilbidearen hedapena denean, jarduketaren benetako kostuaren % 10eko itzuli beharrik gabeko diru-laguntza izango da.

Laguntza honen gehienezko zenbatekoa zortzi mila eta laurehun (8.400) eurokoa izango da.

Gehienezko muga hori aplikatuko da, era berean, hainbat esku-hartze era bateratuan egiten direneko balizkoan ere: igogailuaren ibilbidea zabaltzea edota



oztopoak kentzeko beste edozein, batera egin ala ez. Horretarako, azken 10 urteetan burututako jarduketak hartuko dira kontuan.

3. Arkitektura oztopoak kentzeko beste esku-hartze batzuk:

Jarduketa arkitektura oztopoak kentzeko beste esku-hartze batzuek osatzen dutenean (eskailerak gainditzeko sistema instalatzea, arrapala eratzea, dagoen igogailua berriztatzea, beti-ere iriste erraztasunean hobekuntza dakartenean, dagoen igogailuan geralekuen maila berdinketa helburutzat duten jarduketak...), diru-laguntza jarduketaren benetako kostuaren % 10eko itzuli beharrik gabeko diru-laguntza izango da.

Laguntza horren gehieneko zenbatekoa lau mila eta berrehun (4.200) eurokoa izango da, batera egin ala ez. Horretarako, azken 10 urteetan burututako jarduketak hartuko dira kontuan.

4. Aurreproiektua idaztea:

Jarduketa, gaur egun HAPOko arauekin bat eginez etxebizitzetarako iriste erraztasuna sustatzeko Tokiko Ordenantzaren 6. artikuluan aurreikusita bezala, igogailua jarrita iriste erraztasuna hobetzeko baterako aurreproiektua idaztea denean, baldin-eta dokumentu hori Udalak eskatua bada ondoren lizentzia izapidetzeko eta, beti-ere hori onetsia izan denean, diru-laguntza idazketari dagozkion ordainsarien %100eko itzuli beharrik gabeko diru-laguntza izango da, BEZ barnean hartuta.

Laguntza honen gehieneko zenbatekoa bi mila eta berrehun (2.200) eurokoa izango da.

Diru-laguntza hori gainerako laguntzekiko independentea izango da; beraz, kontzeptu honengatik diruz lagundutako zenbatekoa ez da kontuan hartuko artikulua honetan aurreikusitako beste edozein laguntzaren gehieneko zenbatekoa kalkulatzeko garaian.

5. Igogailua jartzea Otxarkoagako eremuan:

Otxarkoagan iriste erraztasuna hobetzeko Plan Berezia aplikatzeari dagokionez, igogailua jartzeagatik diru-laguntza jarduketaren benetako kostuaren %20ko itzuli beharrik gabeko diru-laguntza izango da.

Laguntza horren gehieneko zenbatekoa hogeita hamabi mila (32.000) eurokoa izango da; muga hori aplikagarria izango da esku-hartze multzo honetarako ere: igogailua jartzea, ibilbidea hedatzea edota oztopoak kentzeko beste edozein, batera egin ala ez. Horretarako, azken 10 urteetan burututako jarduketak hartuko dira kontuan.

6. Dauden urbanizazioen eraberritzea:

Jarduketak titulartasun pribatuen, erabilera publiko nahiz pribatukoak izan, eta bizitegi egoitzen inguruko kanpoaldeko urbanizazioen eraberritze lanak helburutzat dituenen, beti-ere arkitektura oztopoak kentzea helburu duten lanak direnean, jarduketaren benetako kostuaren %20ko itzuli beharrik gabeko diru-laguntza izango da laguntza ekonomikoa.

Laguntza honen gehieneko zenbatekoa sei mila (6.000) eurokoa izango da.

Jarduketa igogailua jartzea denean, laguntza ekonomikoa jarduketaren benetako kostuaren % 10eko itzuli beharrik gabeko diru-laguntza izango da.

Laguntza honen gehieneko zenbatekoa hogeita hamar mila (30.000) eurokoa izango da.

Etxebizitzetarako sarbide gisa eskailera bat baino gehiago duten eraikinetan, igogailu bat baino gehiagoren instalazioa edo arkitektura oztopoak kentzeko lanak izan daitezke diruz laguntzekoak, beti-ere etxebizitza bat baino gehiagori zerbitzu ematen dietenean, eta artikulua honetan ezarritako mugak kontuan hartuta; horiek eskailera bakoitzean banakatuta aplikatzekoak izango dira.

**5. artikulua. — Diruz laguntzen diren gastuak**

Diruz laguntzeko gastuak izango dira, hiru programetan komunak diren Xedapenen Zazpigarren Oinarriko kontzeptuez gain, jarduketarako beharrezkoak diren ondasun edo eskubide erosketa edo besterentzearen prezioa.

Diruz laguntzekoa den benetako kostua zehazteko, Obra Zuzendaritzak, hala behar denean, arkitektura oztopoak kentzeko, urbanizaziorako edo igogailu berria jartzeko behar-beharrezkoak diren obren kuantifikazioa adierazten duen Ziurtagiria egingo du.

**6. artikulua. — Eskaerak aurkeztea**

Oinarri hauetan araututako diru-laguntza eskaerak, hiru programetan Komunak diren Xedapenen Zortzigarren Oinarrian adierazitakoaz gain, surbisaverde@surb.bilbao.eus helbidearen bitartez ere eska daitezke.

6.1. *Erantsi beharreko dokumentazioa:* Laguntzak jaso nahi dituzten pertsona fisiko edo juridikoen eskaera behin obra amaitutakoan aurkeztu beharko dute, eta honako dokumentu hauek erantsi:

1. Surbisaren bulegoetan eta bere web orrian jaso daitekeen «Eskaera eta Erantzukizunpeko adierazpena» inprimakia, behar bezala beteta eta sinatua.
2. Ordezkariek bere NANaren fotokopia, Jabekideen Elkartean IFKren fotokopia eta ordezkariak eman izana adierazten duen dokumentua aurkeztu beharko du.
3. Esku-hartzea obrak egikaritzea denean, emandako udal lizentziaren kopia. Lizentzia hori behar ez bada, dagokion aurretiazko jakinarazpena. Ez dira onartuko obrak egikaritu ostean lortutako edo aurkeztutako lizentziak edo Obraren Aurretiazko Jakinarazpenak edo Instalaziokoak.  
Zeharkako eskailerak instalatzeko edo obra baimena / lizentzia eskatzen ez den beste obra batzuen balizkoan, burututako jarduketaren argazkiak.
4. Jabekideen Elkartean Akta, zeinetan burutzekoak diren obrak onesten direla adierazten den edo dokumentu teknikoak; bertan, onetsitako aurrekontuaren zerbatekoa jasota etorriko da.
5. Beren-beregi salbuetsitako balizkoetan izan ezik, esku-hartzean sartzen den/diren eraikinaren edo Eraikinen Ikuskapen Teknikoaren txostena. Honek aurkeztu izanaren egiaztapen zigilua izango du jarrita. Baldin-eta EITan 1, 2 edo 3. gradu-ko obrak eskatzen badira, aurrekoaz gain, Eraikinaren Ikuskatze Teknikoak Adierazitako Gabeziak Konpondu Izanaren Ziurtagiria aurkeztu beharko da, dagokion Erregistroan aurkeztu izana egiaztatzen duen zigilua duelarik.
6. Obrak hala eskatzen badu, teknikari eskudunaren Proiektu oniritxiduna eta amaierako ziurtapenaren eta likidazioaren kopia.
7. Birgaitutako eraikinaren aldearen obrak hasi aurreko egoeraren eta obra amaierako egoeraren koloretako argazkiak.
8. Kontu-zenbakia eta horren titulartasuna justifikatzen duen dokumentua.
9. Kostuen justifikazio dokumentala: Burututako esku-hartzearen faktura banakatu (banakatu ez badago aurrekontu xehatua eta faktura aurkeztuko dira), udal tasa eta zergena eta profesionalen ordainsariena, baldin baleude. Ez da zenbaterik diruz lagunduko eskaerarekin batera horren faktura edo ziurtagiria erantsi ez bada eta ez da eskaria egin ostean aurkeztutako besterik onartuko.
10. Hala badagokio, igogailua jartzeko erosi edo besterendu den lursailaren edo eraikuntza-zatiaren truke ordaindutako prezioaren dokumentu justifikatzailea.  
Dokumentazio guztia kontzeptuka banakatu egongo da, eta zehazki ziurtatua geratuko da horrela diruz laguntzekoa den aurrekontua.



## EGITURAK PROGRAMA

### 1. artikulua. — *Xedea*

Deialdi honen xedea da honako jarduketa hauek finantzatzeko diru-laguntzak ematea:

- 1. mota. Egiturazko eraberritzeak: bizitegi erabilera duten eraikinei lotutako egiturazko elementuak konpontzeko lanen egikaritzea.
- 2. mota. Termitak eta beste intsektu batzuek kaltetutako eraikinak: Eraikinari eta inguruko elementuei eragiten dieten termita eta beste intsektu batzuen plagak desagerrarazteko lanak.

### 2. artikulua. — *Onuradunak: Nortzuek eska dezakete diru-laguntza*

1. Esku-hartzea burutzen deneko bizitegi eraikinen jabe diren pertsona fisiko edo juridikoek eskatu ahalko dute diru-laguntza, bai eta Jabekideen Elkarrekin ere baldin-eta elementu komunak atxikitzen direnean; horiek beren ekimenez edo Udalak eskatuta jardun ahalko dute.

2. Era berean, laguntza hauen onuradun izan daitezke, zio berbera hartuta eta bat-batean ezinbestez sortutakoak direnean, hala nola, eurite gogorra, luiziak, suteak, e.a., Udalak premiaz esku-hartzea erabakiz gero eta lanak haien orde egikaritzen baditu, beti-ere udalak egikaritzeko agindu eta jabeek agindua ez betetzetik eratorritako esku-hartzeak ez direnean.

### 3. artikulua. — *Diruz lagundu daitezkeen jarduketak eta diru-laguntzen zenbatekoa*

1. mota. Egitura eraberritzeak:

Laguntza ekonomikoa bizitegi egoitzei lotutako egitura-elementuak konpontzeko lanen kostuaren ehuneko hogeita bosteko (%25) Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza izango da, forja, karga-horma, eusteko horma, arkupe eta zimentazioei atxikitakoak direnean.

Kaltetutako egitura-elementuen konponketa sartzan da, euste elementua, forja, arkupea... guztiz konpondu arte.

Hala ere, kanpoan geratzen dira prebentziozko neurri osagarriak, hala nola, behin-behineko eskoramenduak, esku-hartzeari berari ekin aurretik burutzen direnean.

Gainera, higiezinaren ingurutzalean burututako esku-hartzeak, txintxorak edo erlaitzak askatzeko eta erortzeko arriskua ezereztatzeak ere diruz lagunduko dira, beti-ere Udalak agindu edo eskatutako neurrien ondorioz egikarituak izan direnean.

Era berean, diruz laguntzekoa izango da zolata azpian lurreratutako eta egoera txarrean dauden euri eta gorotzen bideratze instalazio horizontalen konponketak.

Kasu guztietan, diru-laguntzatik kanpo geratuko dira behar bezalako kontserbazio eta apaindurak lortzeko ordezkatu beharrekoak diren akaberen ordezkatzeko lanak.

Laguntza honen gehieneko zenbatekoa eraikin bakoitzeko zortzi mila eta lauhun (8.000) eurokoa izango da.

2. mota. Termitak kaltetutako eraikinak:

2.1. Jarduketaren xedea kaltetutako higiezinetan termiten plagak ezereztatzea edo konponketa lanak direnean, laguntza ekonomikoa termiten aurkako tratamenduaren eta obren kostuaren ehuneko berrogeita hamarreko (%50) Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza izango da.

Laguntza honen gehieneko zenbatekoa hogeita bost mila (25.000 euro) eurokoa izango da eraikineko.

Baldin-eta eraikinaren egitura-egoera zein den ikusteko lanak beharrezkoak izan badira (laginak jasotzea) eta termiten aurkako tratamendua hasia dagoenean, laguntza hauen zati baten ordainketa bakarra eskatu ahalko da.

Fase honetan, laguntza lan horien eta dagozkion ordainsari teknikoek benetako kostuaren ehuneko berrogeita hamarreko (%50) Itzuli beharrik gabeko diru-la-



guntza izango da, eta gehienez hamabi mila eta bostehun (12.500) euro ordainduko dira.

Zati baten ordainketa hori obren amaierako likidazioaren eta ordainsari teknikoaren arabera egoki ahal zaion guztizko diru-laguntzaren zenbatekoa kontura abonatuta egingo da.

Termiten aurkako tratamendua hainbat urtez egin behar denean, urtero eskatu ahal da tratamendu horren mantentze lanen ordainketa, 2. atal honetan ezarritako mugak kontuan hartuta.

- 2.2. Eraikuntza elementuak konpondu edo lagunak hartzearen ondorioz akaberak ordezkatzeko lanengatiko diru-laguntza benetako kostuaren ehuneko berrogeita hamarrekoa (%50) izango da.

Laguntza honen gehieneko zenbatekoa bost mila (5.000) eurokoa izango da eraikineko.

- 2.3. Finka-administrazioko profesionalen zerbitzuak kontratatzeagatiko diru-laguntza urte bati dagozkion ordainsari profesionalen % 100ekoa izango da, bati-ere Surbisak kudeatutako Poltsaren bitartez egiten bada; izan ere, poltsa horretan, Surbisak eskainitako prestakuntza ikastaroa gainditu zuten profesionalak sartzeko dira. Modu horretan Jabekideen Elkartearen kudeaketak erraztu egiten dira. Kontzeptu horrengatiko laguntzen gehieneko zenbatekoa zortziehun (800) eurokoa izango da eraikineko.

Etxebizitza bati baino gehiagori zerbitzu ematen dieten atari edo eskailera bat baino gehiago dituzten eraikinetan, atari edo eskailera bakoitza eraikintzat hartuko da diru-laguntza emateko garaian 2. atal honetan ezarritako mugak kontuan hartuta.

#### 4. artikulua. — *Diruz laguntzen diren gastuak*

2. mota. Termitak kaltetutako eraikinak. Diruz laguntzekoa den gastutzat hartuko da:

- Enpresa espezializatu batek burututako termiten aurkako tratamendua.
- Eraikinaren egituraren egoera ikuskatzeko lanak (laginak jasotzea).
- Eskoramendu lanak, egiturazko elementuak konpondu edo ordezkatzeko: zuta-beak, hagak eta forjak, esaterako.
- Termitak kaltetutako zurezko eraikuntza-elementuak ordezkatzeko lanak eta eraikuntza elementuak konpontzearen edo laginak jasotzearen ondorioz akaberak ordezkatzeko lanak, beti ere, jarduketa honetan ere aurretik zeuden akaberen antzekoak erabili direnean.
- Premiazko jarduketetan, termitak daudela-eta burutuak, segurtasunagatiko behin-behineko eskoramenduak sartu ahal dira, beti-ere txosten tekniko batek behar bezala justifikatuta daudenean.
- Finka administrazioetako profesionalen ordainsariak.

Bi kasuetan, gainera, obrarako emandako laguntza teknikoaren ordainsariak, diruz laguntzekoa den jarduketagatik ordaindutako tasa, zerga eta beste prezio publiko batzuk, eta Erantsitako Balioaren Zergaren kostua ere bai, baldin-eta hori ordaindu behar bada eta onuradunek hirugarrenei egotzi ezin badiete.

Burutzen den jarduketak diruz laguntzen ez diren obrak jasotzen dituztenean, diruz laguntzekoak diren obrek eratzen duten proiektu zatia, zuzendaritza edo jarduketa lagunduko da soilik diruz. Beraz, aurrekontua / faktura behar bezala banakatua aurkeztu beharko da. Era berean, tasei, zergei eta prezio publikoei dagokienez, diruz lagundu daitekeen zenbatekoa diruz laguntzekoak diren obren burutzapenaren aurrekontuari proportzionalki kalkulatu da.

Diruz laguntzekoa den benetako kostua zehazteko, Obra zuzendaritzak, hala eskatzen zaionean, Ziurtagiria egingo da, diruz laguntzekoak diren jarduketak jasotzen dituztena.



**5. artikulua. — Eskaerak aurkeztea**

Oinarri hauetan araututako diru-laguntza eskaerak, hiru programetan Komunak diren Xedapenen Zortzigarren Oinarrian adierazitakoaz gain, accesibilidadyestructura@surb.bilbao.eus helbidearen bitartez ere eska daitezke.

5.1. *Erantsi beharreko dokumentazioa*: Laguntzak jaso nahi dituzten pertsona fisiko edo juridikoek eskaera behin obra amaitutakoan aurkeztu beharko dute, eta honako dokumentu hauek erantsi:

1. Surbisaren bulegoetan eta bere web orrian jaso daitekeen «Eskaera eta erantzukizunpeko adierazpena» inprimakia, behar bezala beteta eta sinatua.
2. Ordezkariek bere NANaren fotokopia, Jabekideen Elkartearen IFKren fotokopia eta ordezkaritza eman izana adierazten duen dokumentua aurkeztu beharko du.
3. Emandako udal obra lizentziaren kopia. Lizentzia hori behar ez bada, dagokion aurretiazko jakinarazpena. Ez dira onartuko obrak egikaritu ostean lortutako edo aurkeztutako lizentziak edo Obraren Aurretiazko Jakinarazpenak edo Instalazio-koak.
4. Jabekideen Elkartearen Akta, zeinetan burutzekoak diren obrak edo kontratatu beharreko zerbitzuak onesten direla adierazi eta onetsitako aurrekontuaren zenbatekoa jasotzen den.
5. Esku-hartzean sartzen den/diren eraikinaren edo eraikinen Ikuskapen Teknikoaren txostena. Honek aurkeztu izanaren egiaztapen zigilua izango du jarrita. Baldin-eta EITan 1, 2 edo 3. graduako obrak eskatzen badira, aurrekoaz gain, Eraikinaren Ikuskatze Teknikoak Adierazitako Gabeziak Konpondu Izanaren Ziurtagiria aurkeztu beharko da, dagokion Erregistroan aurkeztu izana egiaztatzen duen zigilua duelarik.
6. Obrak hala eskatzen badu, teknikari eskudunaren Proiektu oniritziduna eta amaierako ziurtagiaren eta likidazioaren kopia.
7. Birgaitutako eraikinaren aldearen obrak hasi aurreko egoeraren eta obra amaierako egoeraren koloretako argazkiak.
8. Kontu-zenbakia eta horren titulartasuna justifikatzen duen dokumentua.
9. Kostuen justifikazio dokumentala: Burututako esku-hartzearen faktura banakaturia (banakaturia ez badago aurrekontu xehatua eta faktura aurkeztuko dira), udal tasa eta zergena eta profesionalen ordainsariena, baldin baleude. Ez da zenbatekorik diruz lagunduko eskaerarekin batera horren faktura edo ziurtagiria erantsi ez bada eta ez da eskaria egin ostean aurkeztutako besterik onartuko.
10. Termiten aurkako tratamenduak hainbat urtez egin behar badira, komunitatearen konpromisoa aurkeztu beharko da, aurreikusitako epean tratamendu horri eutsiko zaiola adierazten duena.

Dokumentazio guztia kontzeptuka banakaturia egongo da, eta zehazki ziurtatua geratuko da horrela diruz laguntzekoa den aurrekontua.

Laguntzaren zati bat eskatuko balitz, aurkeztutako fakturetan termiten aurkako tratamendua eta eraikinaren egituraren ikuskapen lanak (lagunak jasotzea) jasota etorri beharko dira.

Bilbon, 2024ko otsailaren 9an. — Surbisako Zuzendari Nagusia, Marta Ibarbia Aguirrezabala